



Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Osalan

2022ko otsailaren 7an

Txosten
sektoriala **2020**



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



Osalan - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen helburu nagusienetako bat enpresetako ekoizpen-jardueretan Laneko Segurtasuna eta Osasuna txertatzea da.

Txertatze honen ondorioz Laneko Arriskuen Prebentzioan diharduten eragile guztiek helburu bakar bat lortzeko garatuko dituzte beren jarduketak, hots, langileen osasuna babestu eta sustatzeko.

Beharrezkoa da lanpostu, leku, makina, lan-ekipo eta lan-baldintza guztiak lan-arriskuen prebentzioaren ikuspegitik hartzea kontuan, norberaren lan-ekipoak erostetik eta diseinatzetik hasita, zuzendaritza-taldeek, erdi-mailako agintariek eta langile guztiek parte hartuta eta lankidetzan arituta. Bakar-bakarrik egiazko txertatze horren bitartez zuzendu ahal izango dira prebentzio-neurriak gutxitzeko helburuarekin ezabatu ezin izan diren arriskueta, ondoren neurri horien eraginkortasuna egiaztatu eta, beharrezkoa balitz, aldatu edo ordezkatzeko.

Langileei gertatzen zaizkien egiazko arazoetara zuzendutako ekintza-planak abian jarri ahal izateko, **beharrezkoa da zehatz-mehatz ezagutzea arazo horiek zeintzuk diren eta horiek sortzen ari diren eragile eta elementuak zeintzuk diren.**

Beharrezko da, orobat, pertsonen osasunari lotutako **Administrazio guztiek elkarrekin lan egitea** langileen osasun-arazoei eta osasun-arazo horien denborazko joerari buruzko eta horietara zuzendutako ekintzak abian jartzeko **ahalik eta informaziorik gehiena lortze aldera.**

Hain zuzen ere, bi behar horien inguruan egiten ari da ahaleginik handiena, honako hauek saiatuz:

- Batetik, lanari lotuta egonda gaur egun osasun-sistema publikotik kontsultetan egunero artatzen diren patologien artean ezkututzen diren patologia azalaraziko dituzten komunikazio-sistemak bilatzen.

-
- Bestetik, Osasun Publikoari lotutako Administrazioekin parte-hartze handiagoa eta elkarrekiko jarduna.

Horregatik, eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2015-2020 Euskal Estrategia eta 2013-2020 Osasun Plana esparru hartuta, eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2021-2026 Euskal Estrategiaren zirriborroa kontuan hartuta, Osalanen txosten sektorial hau aurkezten da.

2019rako planteatutako helburua izan zen ekintza-planak (administrazioetatik zein prebentzio-zerbitzuetatik) benetako arazoetara bideratzea eta komunikazio-sistemak hobetzen jarraitzea.

2020rako helburuak, informazioa emango duen biztanleria handitzea eta administrazioen arteko lankidetzak hobetzea, partzialki baino ez dira bete.

Pandemiak planteatutako ekintza asko ia erabat geldiarazi ditu. Hala ere, harreman eta komunikazio-bide hobeak ezarri dira prebentzio-zerbitzuekin, beste administrazio batzuekin eta gure administrazioko beste alderdi batzuekin.

OSASUN PLANAREN HELBURUAK ETA EKINTZAK: 5.7. HELBURUA: LAN-INGURUA

Gaixotasun profesionaleko eta langileen arteko istripuetako arriskurik garrantzitsuenak prebenitzea, gizarte- eta genero-desberdintasunak kontuan hartuta.

5.7.1 ekintza. Gaixotasun profesionalak, lan-istripuak eta laneko arriskuak zaintzeko mekanismoak garatu eta hobetu.

Durante el año 2020 se han mantenido los proyectos que informan para el mejor conocimiento de los problemas de salud y sus causas, aunque se han ralentizado un tanto.

2020an, osasun-arazoak eta horien kausak hobeto ezagutzeko informazioa ematen duten proiektuei eutsi zaie, baina apur bat moteldu dira.

2017an hasitako laneko osasunari buruzko datuen informazio-sistema, **gutxieneko datu-multzoa (GDM)**, zeinaren bidez lortu nahi baitira lan egiten duten pertsonen arrisku nagusien eta langile horiek osasunean jasaten ari diren kalteen esposizioak. Osasunerako kalteei buruzko komunikazio-sistema horiek, lanari lotuta egon zitezkeen patologiak azaleratzeko helburua izanda, Osasun Ministerioak argitaratutako gaixotasun profesionalen artean jasotako patologiak ez ezik, osasun-langileek lanpostuetan garatzen diren atazekin lot zitezkeen guztiak jakinarazteko aukera jasotzen dute.

Horrela, 2020an biztanleriaren arrisku-esposizioari buruzko informazioa jaso zen:

DESKRIBAPENA	2019	2020
GDMaren ezarpenaren ehunekoa prebentzio-zerbitzuetan	% 87	% 95
Esposizioak bidali dituzten prebentzio-zerbitzuen kopurua	%25	% 14
Esposizioak bidali dituzten enpresen/lantokien kopurua	237	352
GDM bidez jakinarazitako kalteen kopurua (gaixotasun profesionalen susmotzat hartzen ez direnak)	11	4
Kalteak jakinarazi dituzten prebentzio-zerbitzuen kopurua	3	3

Azalpena: Ezarpenaren ehunekoa OSALANen GDMan sartzeko nahitaezko baimena eskatu duten eta duten prebentzio zerbitzuak dira. 2019an, ehuneko hori %87koa zen, eta %95era arte igo zen 2020an. Horren azalpena da, neurri batean, abendutik aurrera COVID-19 kontaktu estuen bajak Gutxieneko Datu Multzoa (GDM) aplikazioan gaitutako inprimaki batean betetzen hasi zirela prebentzio zerbitzuak.

Esposizioak bidali dituzten (nahiz eta enpresa gehiago egon) eta kalte gutxiago aitortu dituzten prebentzio zerbitzuen kopurua murriztu egin da, eta horren arrazoia izan da COVID-19 osasun-egoeraren ondoriozko zereginen gehikuntza eta gainkarga gehigarria, GDMko esposizioen/kalteen deklarazioa baztertu baitu.

Gaixotasun profesionalaren susmoaren (GPS) jakinarazpena da osasun arazoei buruzko informazioa bilatzen duen beste proiektuetako bat. Prozedura gaixotasun profesionalen taula argitaratzen duen 1299/2006 Errege Dekretuaren 5. artikulutik sortu da. 5. artikulua horrek ezartzen du osasun arloko profesionalak gizarte-segurantzako erakundeei (mutuei eta GSINi) jakinarazi behar dizkietela gaixotasun profesionalak izan daitezkeen patologiak. Prebentzio-zerbitzuetako eta Osasun Sistemako (OSAKIDETZA) medikuek jakinarazi behar dute. Euskadin prozedura bat ezarri zen jakinarazpen hori Osalanen eta Osasun Ikuskaritzaren bidez egin zedin. Osalanek laneko esposizioari buruzko informazioa jasotzen du prebentzio-zerbitzuen bidez.

Laneko gaixotasunaren susmoaren jakinarazpen horren aurrerapena honako hau izan da:

			2015		2016		2017		2018		2019		2020	
			G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
JAKI-NARAZITAKO KASU KOP.	JATORRIA	OSAKI-DETZA	58	13	121	25	91	21	129	26	137	41	150	80
		PREBENTZIO-ZERBITZUAK	434	78	357	84	267	80	181	124	201	53	114	50
		GUZTIRA	492	91	478	109	358	101	310	150	338	94	264	130
			583		587		459		460		432		395	

Iturria: Osalan.

2018. urtean, jakinarazpen bat ezarri zen gutxieneko datu-multzoaren (GDM) aplikazioaren eta gaixotasun profesionalaren susmoaren artean. Prebentzio-zerbitzuek GDMaren bidez jakinarazitako kasuak 139 izan dira 2020an.

Gainera, pertsonen osasun-datu gehiago eman ditzaketen profesionalekin **integrazio handiagoa** lortzeko, informazio-sistemak egokitzeko lan egin da, Osasun Sistema Publikoko medikuek lanarekin zerikusia izan dezaketen patologien berri eman dezaten, eta, sistema horien bidez, prebentzio zerbitzuei lanpostuarekin lotutako informazioa eskatu ahal izateko. Hala, 2015az geroztik, non Osasun Sistema Publikoak jakinarazitako kasuak jakinarazpen guztien %12,18 izan baitziren, 2019an %41,20 izatera igaro gara, eta 2020an %58,22 izatera (beharrezkoa da 2020ko baldintzak kontuan hartzea).

Abenduaren 28ko 28/2018 Errege Lege Dekretuak, pentsio publikoen errealizazioari eta gizarte, lan eta enplegu-arloko premiazko beste neurri batzuei buruzkoak, langile autonomoek kontingentzia profesionala (LG eta LI) estaltzeko betebeharra ezartzen du. Etxeko langileek ere estaldura horiek jasotzeko eskubidea izan behar dute. Horrela, eguneratu egin da SEPeke aplikazioa eta prozedura, pertsona horiek estaltzeko.

2020. urtean zehar informazio-sistema horiek sustatzen jarraitzeko asmoa dago, epe erdirako helburua EAeko langileen arriskuen mapa bat eta osasunerako kalteen mapa bat ezartzea, osasunerako kalteak jakinarazitako arriskuek sortzen dituzten eta horien **joerak ebaluatzea** baita. Joeren azterketa horren bidez, administrazio publikoek eta prebentzio zerbitzuek abian jarritako ekintza-planek lanak eragindako patologiak murriztea lortzen duten ebaluatzea da helburua.

Laneko kalteei buruzko informazio-iturri nagusia laneko gaixotasunen eta lan-istripuen datuak dira. Osalanek txosten bat argitaratzen du urtero, eta estatistikak mantentzen ditu bere webgunean. *Ad hoc* bilaketak egiten dira, datuak hainbat aldagaien arabera ezagutzeko.

Azken urteetan, laneko istripuei, lanbide-gaixotasunei eta lanbide-gaixotasunaren susmoari buruzko txostenak egitean eta argitaratzean, sexuaren arabera bereizitako azterketa sistematikoa egin da.

Jarraian, gaixotasun profesionalen eta lan-istripu hilgarrien intzidentzia-tasak adierazten dira.

	2013		2014		2015		2016		2017		2018		2019	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Gaixotasun profesionalaren intzidentzia tasa ¹ (Tasa/1.000)	4,4	1,5	3,5	1,4	3,5	1,4	3,3	1,7	3,3	1,7	3,3	1,9	2,8	1,5
Lan istripu hilgarrien intzidentzia tasa ¹ (Tasa/100.000)	7,6	0,6	7,6	0,6	7,2	0,6	8,8	1,6	7,7	0,3	8,2	0,5	5,1	0,7
Lanaldiko lan-istripu hilgarrien intzidentzia-tasa ¹ (Tasa/100.000)	6,2	0,6	7,0	0,6	6,1	0,3	7,5	1,4	6,4	0	7,4	0,5	4,3	0,7
In itinere laneko istripu hilgarrien intzidentzia-tasa ¹ (Tasa/100.000)	1,4	0	0,5	0	1,1	0,3	1,3	0,3	1,3	0,3	0,7	0	0,8	0

¹ Lanbide-gaixotasunen eta lan-istripuen urteko intzidentziaren adierazlea urtebeteko atzerapenarekin lortzen da, Gizarte Segurantzatik datuak bidaltzearen arabera, urte hori amaitu ondoren gertatzen baita. Beraz, 2019ko txosteneko adierazleak LGen 2018ko intzidentzia-tasa jasotzen du. Gauza bera gertatzen da lan-istripuen adierazlearekin.

Iturria: Osalan.

2018an abian jarritako **laneko minbiziaren proiektuari** dagokionez, moteltze handia izan du 2020an. Hiru minbizi motari zuzenduta dago, lotura handia baitute lanean minbizi sortzen duten agenteekiko esposizioarekin: mesotelioma, gibelesko angiosarkoma eta sudur-barrunbetako eta sinu paranasaletako adenokartzinoma. 2020an, 12 kasu ikertu dira, mesotelioma kasuak guztiak ere.

Minbizi mota horiek dituzten langileen komunikazioa jasotzeko, Osasun Sistema Publikorako gaixotasun profesionalaren susmoen kasuetarako ezarritako informazio-sistema bera erabili da; beraz, arreta espezializatuko fakultatiboek (onkologia, pneumologia eta otorrinolaringologiakoek) jakinarazten dituzte patologia horiek.

Nabarmentzekoa da Osasun Publikoak mesoteliomaren joeraren analisi-txostena, 2013ra arte eguneratutakoa (minbiziaren erregistroko datuen dekalajearen ondorioz), egiteko izan duen lankidetzaren. Mesoteliomaren txostena 2019an eguneratu zen minbiziaren erregistroko azken datuekin (2015). 2020an, ez da zereginik egin.

Bestalde, sail biek elkarrekin lanean jarraitu dute amiantoaren eraginpean egon ahal izan diren pertsonen fitxategian jasotako langile osasuntsuek, dagoeneko jardunean egon ez daudenez, Lan ondoko Osasunaren Zaintza programara pasatu direnek, eragile horri lotutako patologiarekin bat pairatu duten aztertu ahal izateko.

Bi proiektu egin dira OSAKIDETZArekin eta Osasun Publikoarekin lankidetzan:

- Lehenengoa da amiantoaren eraginpean egon zitezkeen eta Osasun Zerbitzu Publikoan okupazio osteko zaintza egitera bidali diren langileen artean osasunean izan diren ondorioak OSAKIDETZatik itzultzea.
- Bigarrena da minbiziaren erregistroak minbiziaren eraginpean egon daitezkeen langileen zerrendako kohorteari jarraipena egitea, efektu horiek zerrendako pertsonengan duten eragina kontrolatzeko.

Osasun Publikoko sailak eta Osalanek elkarrekin egiten duten lana finkatu egin da **epidemiologia-alerta eta gaixotasun-agerraldien** kasuen ikerketara zuzendutako jarduerari eta prozedurari. Hala, baterako ikerketak egin dira Legionellosiaren, QSukarraren eta sarna-agerraldien edo gaixotasun infekziosoen alerten aurrean, besteak beste, Osasun Sistema Publikoak jakinarazita, alerta eta agerraldi horiek lan-eremuan gertatzen zirenean. Horrela, erakunde biek populazio orokorrari zein langileei zuzendutako terapia- eta prebentzio-neurrien jarduketari, kontrolari eta jarraipenari elkarrekin egiten dituztela bermatzen da.

2020an ikertutako agerraldiak eta alertak:

Legionella: 13

Hazteria: 18

Bestelakoak: Parotiditis agerraldi batean eta gripea agerraldi batean esku hartu da.

2019. urtean, gaixotasun profesionalen alerta eta ikerketarako plan bat prestatu zuen OSALANek. GSINetik azken hilabeteetan aitortutako gaixotasun profesionalen informazioa berreskuratu ondoren, alerta-sistema bat prestatu da diagnostiko batzuetan, horien larritasunagatik edo maiztasunagatik. Helburua prebentzio-neurriak ezartzea da, bai laneko gaixotasunak murrizteko zereginak antolatzeko, bai eta betetzeko ere. Minbiziak, laneko asma eta sorbaldako patologia muskulu-eskeletikoa dira 2020an abian jarritako programan hautatutako diagnostikoak (LG gisa deklaraturako patologietan). 2020an ezin izan da proiektu hori martxan jarri, eta 2021ean jarriko da martxan, pandemiak ahalbidetzen badu.

2019an, argitaratzeko materiala prestatu zen, eta kongresu zein jardunaldietan, eta laneko arriskuen prebentzioaren kalitatea hobetzeko taldeetan parte hartu da, zehazki, langileen osasunaren zaintzan. 2020an tailer bat antolatu da zerbitzu publikoetako sanitarioentzat.

Jardunaldietan eta mintegietan parte hartzeari dagokionez:

- Udako 2 ikastaro antolatu dira eta horietan parte hartu da: plataforma digitaletan eta COVIDarekin lan egin da.
- Psikosoziologiari buruzko urteko jardunaldiak antolatu dira eta horietan parte hartu da.
- COVID jardunaldiak.
- Beste 7 jardunalditan parte hartu da: SEA (4), APD (3).

Dibulgazio- eta argitalpen-proiektuaren barruan:

1. 2019an Osasun Ministerioak argitaratutako *Osasuna zaintzea laneko arriskuak prebenitzeko gida* argitaratu duen eta Osalanek 2020an argitaratu duen taldean parte hartzea (Lurralde arteko Osasun Kontseiluaren lan-osasuneko ponentzia).
2. Prebentzio-zerbitzuen osasun-arloetarako dibulgazio-argitalpen bat prestatzea, "Osasunaren Zaintzaren Plangintzari" buruzkoa; 2020an etenaldia izan du.

-
3. Banakako zaintzari eta «gaitasun» eta «prebentzio-neurri» kontzeptuen inguruko konnotazioei buruzko informazioa prestatzea, aipatutako *Osasuna zaintzea laneko arriskuak prebenitzeko gidan* argitaratutakoarekin bat etorriz. 2020an materiala prestatu da, baina osatu gabe.

PANDEMIAREKIN LOTUTAKO EKINTZAK

2020. urtea lan-arloan pandemiaren inguruko aholkularitzarekin, kontrolarekin eta jarraipenarekin lotutako zereginetara eskaini zaie ia modu eksklusiboan.

PARTE-HARTZEA

- Ministerioko osasun publikoko batzordearen lan-osasunari buruzko ponentzia.
- COVID-19aren koordinazio-taldea.
- Lan Saileko Krisi Kabinetea.
- ESletako batzordeak.

AHOLKULARITZA-LANAK

- Argitalpenak: fitxak, gidak, kontingentzia-planerarako laguntza, maiz egiten diren galderetara erantzutea...
- Kontsultak: Tramitagune, posta elektronikokoak, telefono bidezkoak...
 - Langile sentikorrek, lanera itzultzea, proba diagnostikoak...
- Webgunea: 166.000 bisita 2020an, 45.000 deskarga.
- Protokoloak: hainbat sektoretako protokoloen argitalpenean parte hartzea.

KONTROL ETA JARRAIPEN-LANAK:

- Lan-arloko kasu eta harreman estuen kontrola eta jarraipena.
 - Lankidetzaren estua prebentzio-zerbitzuekin.
- Lan-eremuko harreman estuen aldi baterako ezintasunaren kudeaketan parte hartzea.
- Sektore edo jarduera zehatzetako prebentzio-kanpainetan parte hartzea:
 - Egoitza soziosanitarioak.

-
- Alturako arrantza.
 - Haragi industria.
 - Sasoikako lana.

PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA

Pandemiarekin lotutako 10 jardunalditan parte hartu da.

5.7.2 ekintza. Laneko Segurtasun eta Osasunerako estrategia garatu.

2015-2020 estrategia 2020an amaitu da. 2018an, "Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia 2015-2020"ren tarteko ebaluazioa egin zen, eta 2019an argitaratu zen.

2020an, 2021-2026 aldirako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia lantzeari ekin zaio, eta 2021ean amaituko da haren ezarpena.

5.7.3 ekintza. Osasunaren eta laneko ezbeharren arloko ikerketa bultzatu.

2020an, ikerketa-gaien nolabaiteko geldialdia egon da. SAFERaren (industria-segurtasunaren arloko Europako ikerketa koordinatzea helburu duen talde europarra) esparruko bi proiektutarako diru-laguntza onartu da.

Onartutako gaiak:

- GAIKER: Litio-ioien bateriaren bizi-zikloa. Segurtasun-arriskuak eta arriskuen kudeaketa lantokietan.
- BIOBIDE: Fluxu-baterien elektrolitoen segurtasuna ebaluatzea.

5.7.4 ekintza. Prebentzio zerbitzuen eta lan osasuneko batzordeen esku-hartzea sustatzea, lan estresa eta lanarekin lotutako nahasmendu metalak prebenitzeari zuzenduta.

Teknologia berrien ondorioz eta, beraz, lan egiteko era berrien ondoren, lan-baldintza berri hauei lotutako arriskuen inguruko sentikortzea eta informazioa sendotu eta azpimarratu behar da, arrisku horiek, askotan, lanpostuko presioaren, denboren, eta azken batean, arrisku psikosozialen ondorio baitira.

Arrisku psikosozialak prebenitzeko aldeko lan-giroak sustatzeko kontzientziazio- eta sentsibilizazio-lan horretan, Tramitagunek sartutako 15 kontsultari eta laneko arriskuen prebentzioan lan egiten duten langileentzako

beste 75 kontsultari erantzun zitzairen, bai eta 17 sarrerari eta salaketetatik eratorritako 15 txosteni ere.

Osasuna sustatzeko taldearen barruan, osasun mentala sustatzeko talde espezifiko bat sortu da. 2020an argitalpen berri bat prestatzen aritu gara: Adinaren kudeaketa eta lan-arriskuen prebentzioa. Espero dugu 2021ean argitaratzea.

Osalanen webgunea, Psikopreben, sustatzen jarraitzen da. Bertan, abian jartzen diren prestakuntza eta informazio-ekintza guztiak sartzen dira. 2020an webgune honek 110.550 bisita jaso zituen, 2019an (90.015) baino %23 gehiago.

5.7.5 ekintza. Ohitura osasungarriak lan inguruan sustatzea eta erraztea (ariketa fisikoa, elikadura osasungarria, mendekotasunen prebentzioa).

Beharrezkoa da honelako arriskuen inguruko prebentzio-kulturaren hedapenari eutsi eta edonolako lan-indarkeria saihesteko beharrezko tresnak jartzea.

Osasunaren sustapenari dagokionez eta lanean ohitura osasungarriak sustatu eta bideratzeko helburuarekin, funtsezko jarduerak garatu dira bi arlotan:

- Enpresa-eremuan **erakunde osasungarriekiko** sentsibilizazioa.
- Enpresetan adikzioei aurrea hartzeari buruz.

2020an 6 tailer egin ziren Arabako Enpresa Sindikatuarekin (SEA Arabako Enpresak) "Enpresa osasungarria" proiektuaren barruan, eta proiektu horren barruan enpresetan osasunaren sustapenaren egoera neurtzeko tresna bat diseinatu zen.

2018an, enpresa handien foro bat sortu zen, 15 enpresa ordezkatzuz, eta jorratu beharreko lehen gaia lan-arloko osasunaren sustapena izan zen. 2020an ez da bilerarik egin foro horretan, enpresa osasungarriaren azterketan.

0 Ikuspegiari buruzko La Fraternidad Mupresparen enpresa osasungarria jardunaldian parte hartu.

Enpresetan adikzioei aurrea hartzeari dagokionez, enpresetako antolakuntzetan adikzioak prebenitzeko dauden planen ezarpen-maila ezagutzeko kanpaina egin zen 2018an. EAEko eraikuntza-sektoreko 73 enpresari zuzendu zen kanpaina hori, eta horiek aukeratzeko irizpideak izan ziren 10 langiletik gorako langile-taldea edukitzea CNAE 41, 42 edo 43ko (eraikuntzari lotutako kodeak) enpresak izatea. 2018an inkestak egin ziren enpresa horietan,

eta emaitzak aztertu eta ondorioak landu ziren 2019an. Emaitzak 2020an argitaratzea aurreikusita zegoen, baina ez dira argitaratu.

Enpresetan adikzioak prebenitzeko gida zabaltzen jarraitu da, prebentzioko ordezkariari zuzenduta, eta webgunearen bidez nahiz jardunaldi guztietan emandako triptikoen bidez zabaldu da.

2020an **berdintasunaren, laneko arriskuen prebentzioaren eta generoaren arloan** lan egin da. Osalanek 2018-2021 aldirako plan bat du. 2020an, plan hori garatzean, honako jarduera nagusi hauek egin dira:

- Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko bideoak egin eta argitaratu dira. Gaia: “12 urrats enpresaren prebentzio-kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko”.
- Laneko arriskuen eta horien ondoriozko kalteen aurreko jarreretan eta portaeretan eragiten duten genero-faktore” nagusiei buruzko azterketa.
- Prebentzio-ordezkariari laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudiari buruzko oinarrizko prestakuntza emateko materiala prestatzea, genero-ikuspegia duena.
- Generoari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko bi prestakuntza-saio eman dira UPV/EHUko Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Masterrean (2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteak).

Se mantiene el convenio firmado con Emakunde para llevar a cabo acciones conjuntas orientadas a integrar el enfoque de género en la prevención de riesgos laborales. En este convenio, OSALAN ha elaborado la parte preventiva del protocolo frente al acoso sexual y por razón de sexo, que debe incorporarse al protocolo revisado de Emakunde para su publicación conjunta.

Osalan ha realizado las “Orientaciones para la prevención del acoso sexual y por razón de sexo”, que se encuentran publicadas en la web del Organismo.

LABURPENA

2020

Helburu nagusia:

- Osasun-arazo eta beharrei, eta arrisku-agenteei buruzko informazioa biztanle gehiagorengandik jasotzea.
- Administrazioekiko lankidetzaren hobetzea, laneko arriskuen prebentzioa hobetzeko.

2020an zailtasun handiak egon dira ohiko proiektuak garatzeko. Hala ere, bi helburuek hobera egin dute beren egoeran: GDMk eta GPK-k beren zenbakiak modu diskretuan hobetu dituzte.

Pandemiak administrazioen arloen arteko ezagutza eta lankidetzaren nabarmen hobetzea lortu du.

Ekintzak:

- Prebentzio-neurrien eraginkortasuna ezagutzeko joerak ebaluatzeko adierazleak hobetzea.
- Gaixotasun profesionalen ikerketa prebentzio-helburuekin, hau da, kausak ezagutzea prebentzio-neurriak jartzeko eta errepikatzea saihesteko, sortutako alerta-sisteman zentratutako ikerketa. Garatze bidean.
- Osasunaren zaintzaren plangintza hobetzeko argitalpena argitaratzea eta zabaltzea. Garatze bidean.
- OSALANek «*Osasuna zaintzea laneko arriskuak prebenitzeko gida*» argitaratu eta dibulgatzea. Banakako zaintzaren informazioa eta dibulgazioa. Garatze bidean.
- Lanean zaintza epidemiologikoa bultzatzen jarraitzea: osasun kolektiboaren zaintza.

Proiektu hauei dagozkionak:

- Gaixotasun profesionalen ikerketa: alertak. Garatze bidean.
- Osasun-jarduketaren kalitatea Prebentzio Zerbitzuetan: Talde Zaintza eta prebentzio-neurrien plangintza. Hasi gabe.
- Lanean osasunerako adierazleak.
- Zaintza kolektiboa.

2021

Helburu nagusia:

- 2020an etendako helburuei eta proiektuei berrekitea, besteak beste:
 - Laneko gaixotasunen alerta-sistema.
 - Jatorria lana izatearen susmagarri diren minbizien alerta-sistema.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko kontzientziazio-, dibulgazio- eta prestakuntza-kanpaina langile autonomoentzat.

Ekintzak:

- Autonomoei zuzendutako kanpaina: jardunaldiak, prestakuntzarako plataforma, prestatzaileen prestakuntza...
- Gaixotasun profesionalen ikerketa prebentzio-helburuekin, hau da, kausak ezagutzea prebentzio-neurriak jartzeko eta errepikatzea saihesteko, sortutako alerta-sisteman zentratutako ikerketa.
- Osasunaren zaintzaren plangintza hobetzeko argitalpena argitaratzea eta zabaltzea.
- OSALANek «Osasuna zaintzea laneko arriskuak prebenitzeko gida» argitaratu eta dibulgatzea. Banakako zaintzaren informazioa eta dibulgazioa.
- Lanean zaintza epidemiologikoa bultzatzen jarraitzea: osasun kolektiboaren zaintza.

Proiektu hauei dagozkionak:

- Laneko arriskuen prebentzioko **oinarrizko mailako prestakuntza-plan** bat egitea **langile autonomoentzat**, elkarrekin lankidetzan.
- Laneko gaixotasunak ikertzeko kanpaina: alertak.
- Osasun-jarduketan kalitatea Prebentzio Zerbitzuetan: Talde Zaintza eta prebentzio-neurrien plangintza.
- Laneko osasunerako adierazleak.
- Zaintza kolektiboa.

2013 – 2020 ALDIA

5.7.1 ekintza. Gaixotasun profesionalak, lan-istripuak eta laneko arriskuak zaintzeko mekanismoak garatu eta hobetu.

- Gaixotasun profesionalaren komunikazio-sistema abian jartzea.
- Gutxieneko Datu Multzoa sistema abian jartzea.
- Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea agerraldien ikerketan.
- Lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak ikertzea.
- Ezbehar-tasa murriztea:

	2013		2019	
	G	E	G	E
Gaixotasun profesionalaren intzidentzia tasa ¹ (Tasa x 1.000)	4,4	1,5	2,8	1,5
Lan istripu hilgarrien intzidentzia tasa ¹ (Tasa/100.000)	7,6	0,6	5,1	0,7
Lanaldiko lan-istripu hilgarrien intzidentzia-tasa ¹ (Tasa/100.000)	6,2	0,6	4,3	0,7
In itinere laneko istripu hilgarrien intzidentzia-tasa ¹ (Tasa/100.000)	1,4	0	0,8	0

5.7.2 ekintza. Laneko segurtasunerako eta osasunerako estrategia garatu.

- 2015-2020 estrategia egin eta bete da.
- 2015-2020 strategiaren ebaluazioa egin da.
- 2021-2026 estrategia egiten ari dira.

5.7.3 ekintza. Osasunaren eta laneko ezbeharren arloko ikerketa bultzatu.

Segurtasunerako eta osasunerako estrategia garatzeko, ikerketa-proiektuak diruz laguntzeko prozedura bat jarri zen abian. Urte hauetako emaitza:

URTEA	ESKAERAK	ONARTUAK	DIRU-LAGUNTZA (€)
2013	0	0	0
2014	96	13	425.390
2015	49	6	225.688
2016	22	6	421.808
2017	0	0	0
2018	2	2	100.000
2019	0	0	0
2020	2	2	50.000
GUZTIRA	171	29	1.222.886

5.7.4 ekintza. Prebentzio zerbitzuen eta lan osasuneko batzordeen esku-hartzea sustatzea, lan estresa eta lanarekin lotutako nahasmendu metalak prebenitzeari zuzenduta.

Arrisku psikosozialen prebentzioan lan handia egin da:

- Psikopreven arloko webgunean argitaratzea.
- Psikosoziologiari buruzko urteroko jardunaldiak.
- Gai horri buruzko kontsulten txostenak eta erantzunak.

5.7.5 ekintza. Ohitura osasungarriak lan inguruan sustatzea eta erraztea (ariketa fisikoa, elikadura osasungarria, mendekotasunen prebentzioa).

Osasuna sustatzeko talde bat jarri da martxan.

- Lantaldeak enpresa handiekin.
- Osasun Sailarekiko lankidetzak.
- Jardunaldiak antolatzea eta horietan parte hartzea.
- Kontsultei erantzutea.

Adikzioen prebentzioan lan egiten da.

- Prebentzio-zerbitzuetarako gida argitaratzea.
- Landa-lana.

-
- PZekiko lankidetza.
 - Osasun Sailarekiko lankidetza.
 - Jardunaldiak antolatzea eta horietan parte hartzea.
 - Kontsultei erantzutea.

Berdintasun Planean lan egin da:

- Lantalde bat eratu da generoarekin eta laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako ekintzak garatzeko, eta berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoa eman zaie taldeko langileei. Talde horrek lan-arriskuen prebentzioaren arloko egoera aztertu eta genero-ikuspegia duten lan-ildoak zehazten ditu.
- Hitzarmen bat sinatu eta garatu da Emakunderekin, laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia txertatzen lagunduko duten baterako jarduerak garatzeko eta lankidetzan aritzeko.
- Berdintasunerako teknikari lanpostua sortu da, eta Berdintasunerako 2018-2021 Legegintzaldi Plana egin eta inplementatu da. Plan hori Osalanen urteko kudeaketa-planetan sartu da.
- Generoari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko azterlan zehatzak egin dira.
- Generoari buruzko atal espezifikoa bat sortu eta garatu da Osalanen webgunean, eta generoari eta lan-osasunari buruzko atal bat Osalanen liburutegiaren hileko buletinean.
- Generoari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko dibulgazio-ekitaldiak antolatu dira bai Osalaneko langileentzat, bai laneko segurtasun eta osasuneko beste profil profesional batzuentzat, eta horietan parte hartu da, eta aholkularitza eman zaie enpresei, langileei eta administrazioei genero-gaietan eta laneko arriskuen prebentzioan.
- Generoari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko laguntza- eta aholkularitza-materialak landu eta argitaratu dira.
- Genero-ikuspegia txertatu da Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren tarteko ebaluazioan (2015-2020), eta estrategia berria (2021-2026) egiteko prozesuan sartzen ari dira.

ADIERAZLEAK			
ADIERAZLEAK	OSASUN PLANAREN HASIERAKO EGOERA	2020RAKO HELBURUA	ITURRIA
Gaixotasun profesionalaren intzidentzia tasa Tasa/100.000	Gizonak 4,16 Emakumeak 1,51 (2012)	↓ % 10	OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Lan istripu hilgarrien intzidentzia tasa Tasa/100.000	Gizonak 8,7 Emakumeak 0,9 (2012)	↓ % 10	OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

	2013		2019	
	G	E	G	E
1. Gaixotasun profesionalaren intzidentzia tasa ¹ (Tasa x 1.000)	4,4	1,5	2,8	1,5
2. Lan istripu hilgarrien intzidentzia tasa ¹ (Tasa /100.000)	7,6	0,6	5,1	0,7

GP tasa: gizonezkoetan bete da; emakumezkoetan, ez.

LIH: gizonezkoetan bete da; emakumezkoetan, ez.

Ez da baloratu hirugarren adierazlea, "Laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuen tutoretzapeko enpresak", iturria galdu delako.

LANEKO OSASUNAREN ARLOKO HELBURUAK HURRENGO OSASUN PLANERAKO

Osasun Planaren aldi berrirako helburuak kontinuitate izango dira. Garatu den jarduera sustatzen jarraitu beharko da, helburuetan aurrera egiten jarraitzeko. Etengabeko hobekuntza-prozesua, zenbait ñabardura eta zehaztapen garrantzitsuekin:

- Helburuak garatzea, 2021etik 2026ra bitarteko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren ardatzekin, helburu estrategikoekin eta ildoekin bat etorritik.

- Helburu hauek lortzea:

- Laneko Arriskuen Prebentzioa betetzeko zailtasun handiagoa duten erakundeak.
 - Autonomoak.
 - ETEak eta mikroETEak.
 - Etxebizitzetako lana.
- Laneko Arriskuen Prebentzioa betetzeko zailtasun gehien dituzten biztanleak.
 - Sektore soziosanitarioa.
 - Lehen sektorea.
 - Ostalaritza eta merkataritza.
- Berdintasunarekin jarraitu eta horretan aurrera egin.
- Laneko arriskuen eraginpean egoteagatik osasunean sor daitezkeen kalteak azalerratez, horien kausak aztertzeke, prebentzio-neurriak proposatzeko eta berriz ez gertatzeko.
- Lanarekin zerikusia izan dezaketen minbizien bilaketa egitea, prebenitzeko ezarritako prebentzio-neurriak egokiak diren egiaztatzeke.

ADIERAZLEAK:

- Horiei eustea, helburu berberekin.
- Hirugarrena berreskuratzea, S98 aplikazioaren bidez.

ADIERAZLEAK			
ADIERAZLEAK	OSASUN PLANAREN HASIERAKO EGOERA	2020RAKO HELBURUA	ITURRIA
Gaixotasun profesionalaren intzidentzia tasa	Gizonak 2,8 Emakumeak 4,5 (2019)	↓ % 10	OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Lan istripu hilgarrien intzidentzia tasa	Gizonak 5,1 Emakumeak 0,7 (2019)	↓ % 10	OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

